



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN
2019KO URTARRILAREN 28KO EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE
FUNTZIONARIOEN ESTATU MAILAKO 2018/2019KO LEKUALDATZE-
LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-
HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN
DUENA**

Hezkuntza sailburuaren 2018ko urriaren 23ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2018ko urriaren 31),

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoko langile funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2018ko urriaren 23ko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoko karrerako langile funtzionarioentzako estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.

Hirugarrena.- Lehiatzaileek zuzendu ahal dituzten akats formalak dituzten merezimenduen zerrenda argitara ematea. (II. Eranskina)

Laugarrena.- Erreklamazioak egiteko epe bat irekitzea, 2019ko urtarrilaren 30etik otsailaren 12ra, biak barne. Epe berean zuzendu ahal izango dira forma-akatsak dituzten eskabideak.

**JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 28an